

{ datorrena } **Gorka Elejabarrieta**

Uruguai

Ekainaren 5ean Euskal Herriko konponbidearen aldeko konferentzia antolatu zuten Uruguaiako Parlamentuan. GARA eta “Berria” egunkariak kenduta, Euskal Herriko eta bi estatuetako komunikabideek ez zioten ekimenari jaramonik egin. 12.000 kilometrora dagoen herri bateko ordezkari politiko, sindikal eta sozial nagusiak gure herriak bizi duen gatazkaren konponbidearen alde azaltzea, aldeei konpromiso gehiago eskatzea eta haien laguntza eta esperientzia eskaintzea ez omen da berria hemen. Irizpide profesionalak edo politikoak?

Julio Maria Sanguinetti presidente ohia, EAJk berak zuzenduriko Eusko Jaurlaritzako Gobernu Kontseiluaren Lagun Onari saria jasotakoa, izan zen Montevideoko adierazpenaren sinatzaileetako bat. Oroitu beharra dago bai Sanguinetti bera bai Lucia Topolansky Mexikoko urriko konferentzian izan zirela eta Uruguai honetan ere egon direla. Beraiekin batera Uruguaiako ministro ohiak, egungo hainbat ministro, alderdi guztietako diputatuak, herrialdeko sindikatu nagusia den PIT-CNTko arduradun nagusiak, unibertsitate dekanok eta irakasleak, artista eza-gunak, futbolariak... daude adierazpenaren sinatzaileen artean. Eta konferentziaren babesle taldea aipatzerakoan ezin ahaztu euskal diasporaren presentzia eta konpromisoa. Asko dira Euskal Herriko Uruguaira joandako euskaldunak, hiru milioi biztanle daukan herri horretako herri-asko euskal jatorria dute.

Beraz, eta berriz ere babesleen profilaren garrantzia azpimarraturik, galdera errepikatu beharra daukat, edo galdera beste modu batean planteatu, erantzunak aurkitze aldera. Uruguaiako Gobernuko arduradun izandakoak, direnak eta izango direnak, sindikalistak, intelektualak, kirolariak, artistak, gure herriko zenbait ordezkari ez bezala, bi estatuetako arduradunak ez bezala, horren urrun daukaten gatazka baten konponbidearen alde azaltzea eta inplikatzeko ez da berria; beraz, normala dela ondorioztatu beharko nuke, egunero gertatzen den zerbait. Normala ez dena, baina, gure herriko hainbat ordezkariaren eta espainiar zein frantses estatuetako ordezkarien jarrera da. Konponbide prozesuan inplikatu gabe, elkarriketa eta negoziazioei uko eginez, gatazka betikotu nahi duten horien jarrera.

Oroitu beharra dago espainiarrek euskal iheslarien kontra bultzaturiko Filtroko operazioetik hogeitaz beteko direla las-ter. Orduan ere Euskal Herriarekiko Uruguaiako herriak erakutsitako elkartasuna izugarria izan zen, euskaldunok sekula ahaztuko ez dugun elkartasuna. Oraingoan beste elkartasun irakaspen bat eman digute. Horren urrun eta horren gertu.

Gure herrian prozesua aurrera doa, zailtasun ugariarekin baina aurrera eta norabide onean, eta bide horretan bada Uruguaira berriz ere begiratzera behartzen gaituen arrazoi-rik. Uruguaiako Frente Amplio koalizioak 43 urte bete ditu duela gutxi. Ideologia eta jatorri ezberdineko alderdi ugari-rik elkarrekin lanean dihardute orain dela 43 urtetik, eta, pixkanaka, zailtasun handiz, koalizioaren sorrera eragin zuten helburuak lortzen ari dira. Gobernuan bi legegintzaldi da-ramatzate uneotan, eta jarritako helburu politikoetatik ge-ro eta gertuago daude. Izan ere, jarritako helburua edo az-ken helburua hobe esanda, ez zen gobernu eskuratzea,

Frente Amplio koalizioa sortzean jarritako azken helburua ez zen gobernu eskuratzea, Uruguai hobe bat, justuago bat eraikitzea baizik. Gobernu helburuak lortzea ahalbidetzen duen tresna bat baino ez da

Uruguai hobe bat, justuago bat eraikitzea baizik. Gobernu tresna bat baino ez da, eta gobernuan egoteak helburuak errazago lortzea ahalbidetzen du. Baina zailtasun eta arazo berriak ere ekartzen ditu, Pepe Mujika presidentek asko-tan horren ongi adierazi duen bezala. Nelson Mandela, Fi-del Castro, Hugo Chavez, Pepe Mujika, gerrillatik, kartzela-tik, presidente bulegora. Mandelak behin adierazi bezala, zenbait herritan presidente bilakatzeko lehendabizi kartzela-tik pasa beharra dago. Euskal Herrian ere etorkizun hur-bilean horren adibide on bat izango dugula ziur naiz.

Uruguai eta Euskal Herria 12.000 kilometro aldentzen dituzte elkarrengandik, baina ehunka zubi, bizipen, harre-manek elkartzen gaituzte. Iraganean, egun eta etorkizune-an. Hiru milioi biztanle ditu Uruguai, Euskal Herriak beza-la, eta horietatik asko gara beste behin ere “eskerrik asko” esan nahi dizuegunak. •